

22. inprimakia

Ezohiko Batzarrean **higiezinean igogailua instalatzea erabakitzeko aktaren** eredu

....., bi mila(e)korena.

Bertaratu

..... jauna/andrea. Pisua: Kuota: %.....
..... jauna/andrea. Pisua: Kuota: %.....
..... jauna/andrea. Pisua: Kuota: %.....

Ordezkariak

..... jauna/andrea. Pisua: Kuota: %.....
..... jauna/andrea. Pisua: Kuota: %.....
..... jauna/andrea. Pisua: Kuota: %.....

Bertaratu gabeak

..... jauna/andrea. Pisua: Kuota: %.....
..... jauna/andrea. Pisua: Kuota: %.....
..... jauna/andrea. Pisua: Kuota: %.....

Presidenteak bigarren deialdian horretarako deitutako Ezohiko Batzarrean bildu ondoren (lehen deialdia balioz-kotzat hartzeko behar adina pertsona bertaratu ez zirenez gero, bigarren deialdia egin zen ordu erdi geroago, deialdian jaso zen bezala), Batzarrari hasiera eman zitzaison, jauna/andrea izan zen Presidente, lokalaren jabea, hain zuzen ere. Marjinan zerrrendatutako jabeek Erkidegoaren partaidetza-kuoten % dute.

Horren ondoren, deialdiaren gai-zerrendako puntuak jorratu ziren, eta horiek azaldu, eztabaidatu eta bozkatu ondoren, honako erabaki hauek hartu ziren:

LEHENA.- Higiezinean igogailua eraikitzea.

Aurreko bileretan adierazi dugunez, eraikina interes orokorreko zerbitzu komun berri horretaz hornitu nahi dute Erkidegoko hainbat jabeek. Horretarako, Erkidegoko administrariak eta presidenteak, asmo hedatu hori aintzat hartuz, horren gaineko informazio tekniko eta administratiboa bildu dute, eta ondorioztatu dutenez, ez dago higiezinean igogailua instalatzeko inolako eragozpenik.

Bestalde, zerbitzu komun hori oso erabilgarria da, eta hainbat jabe zaharrentzat beharrezko, eta horretaz gain, eraikina eta elementu pribatiboak modernizatzen ditu eta balio handiagoa ematen die. Era berean, hainbat enpresari instalazioaren kostuari buruzko informazioa eskatu diegu, eta horrela, bi aurrekontu aurkez ditzakegu Batzar honetan, horietako bat XX enpresarena eta bestea Y markarena. Horien bien ustez, teknikari dagokionez, instalazio horietarako leku aproposena ataria eta eskaileraren zuloa da, horrela behar adina leku geratuko bailitzateke, atarian zein eskailera-buruan.

Gauzatu beharreko obrei dagokienez, XX enpresaren eta Y firmaren prezioen artean ez dago alde handirik, baina Y firma ospe eta esperientzia handiagokoa denez, apur bat garestiagoa da. Zenbateko horri beste hainbat kontzeptu gehitu beharko litzakiokoe, obra-lizenziari eta instalazioa zuzenduko lukeen goi-mailako teknikariari dagozkienak, hain zuzen ere. Eman diguten informazioaren arabera, guztizko zenbatekoa eurokoa izango litzateke.

Aparteko 10 derramen bitartez ordainduko litzateke obra, aurrekontuek eskatzen dituzten ordainketei aurre egiteko.

Orobat, lokalek zerbitzu komun berrian parte hartu behar dutela jakinarazten dizuegu, baina etorkizunean, mantentze- eta kontserbazio-lanengatiko gastu arruntetatik kanpo geratuko dira, zerbitzu berri hori ez baitute erabiliko

Dagozkion eztabaidea eta deliberamenduaren ondoren (bertaratutako jabe askok esku hartu dute eztabaidea eta deliberamendu horietan), X enpresaren aurrekontua eta obra-lizentziarako eta zuzendaritza teknikorako partida gorena onartu da; guztizko kopurua, behin-betiko likidazioa alde batera utzi gabe, eurokoa da. Lokalek etorkizuneko mantentze- eta kontserbazio-lanetan ez dutela parte hartuko ere erabaki da.

Eraikineko elementu pribatibo guztien artean banatuko da zenbateko hori, bakoitzaren partaidetza-kuotaren arabera:

1. Ionja.	Kuota: %.....	Obraren zenbatekoa	euro
1. pisua, ezkerra.	Kuota: %.....	Obraren zenbatekoa	euro
2. pisua, eskuina.	kuota: %.....	Obraren zenbatekoa	euro

Zenbateko hori ordaintzeko, aparteko 10 derrama igorriko dira(e)tik aurrera, jabe bakoitzari dagokionaren arabera. Derrama horietakoren bat ordaintzen ez bada, Erkidegoak bide judizialetik exijitu ahal izango du derrama guztien ordainketa, beharrezkoa dela baderitzo, baita une horretan derrama horiek ez badiria sortu ere, eta ondorio horretarako, egoki deritzen kudeaketak egiteko ahalmena eman zaizkio presidenteari. Horretaz gain, abokatuak eta prokuradoreak izendatzeko eta epaiketa hasteko ahalmena edukiko du.

Igogailua instalatzea onartu da. Hona hemen bozketaren emaitzak: aldeko bota eman duten pertsonak:Aldeko botoen partaidetza-kuota: %:..... Kontrako bota eman duten pertsonak: : Kontrako botoen partaidetza-kuota: %..... Hori dela- eta, erabakia behin-behineko onetsi da, Erkidegoko jabeen eta partaidetza-kuoten hiru bostenen aldeko botaok lortu baitira.

BIGARRENA,-Galde-eskeak.

Presidentea Idazkaria – Administratzialea

(Ondoren, bertaratu direnek sinatu dute.)

Izpta: jauna/andrea. Izpta: jauna/andrea.